



# Antxiñako fotografixia



Fotografixa hau Joxe Fernandezek eskuratu dosku.

## Ospital zaharra

Hamaseigarren mendiaeren hasieratik 1965-66 ingururarte, 450 bat urtian, hementxe egon zan Oñatiko Ospitala, hau da, Unibersidadia eta Hernanitarren etxiaren artian. Egixa esateko, Unibersidadia jaso orduko (1540-48), Ospitalak martxan ziharduan urte batzuetan. XVI.eko Ospital zaharrak, ikutu askorekin, 1844rarte iraun eben; urte horretan eraikuntza zaharra zihero bota eta argazkixan agiri dan hau jaso zan herritarren diruaz eta Ameriketan bizi ziran oñatiarren laguntzaiaz.

Ospital barrixorrek 120 urte inguruko iraupena euki eben, orain dala 25 urte pasatxo R.M. Zuazola Instituto barrixa egitteko lurreratu eben eta. Institutua atzerago eraiki zan eta Ospitalak okupaitten eben saillik haundixenian orain plazuela zabal bat ikusi geinke, Unibersidadiaen aurrian daguenarekin bat egiñaz. Orduan Ospitala Kolejialdetik Etxaluzera eruan zan eta Karidadeko monjak bertan eukain ikastetxia Santa Marinara. Etxaluzen puska batian egon ondoren, San Martingo Egoitza barrixa jaso zan, ez Ospitala izateko, Erresidentzia moduan baiño.

J.E



## GUZTIZ-EDER

ARANTZAZU TXINTXURRETA  
ESTETIKA ETA MASAJEA  
BIO-COL TRATAMENDUAK

Etxaluze Etxea - Kale barria, 54-1º F  
Tfnoa. 78 01 46  
OÑATI



**URTXIN**  
Loradenda

Portu kale, 5 - Tfnoa. 78 22 41 - OÑATI

- Lehortutako lorez eta lore naturalez egindako multzoa.
- Ezkontzatarako lore-sortak.
- Berne eta kanpoko dekorazioa.